


2025eko
Urteko
Txostena

Sozietate Gestorea:
Caja Laboral Gestión S.G.I.I.C., S.A.
Entitate Gordailuzaina:
Caja Laboral Popular
Coop. de Crédito



LABORAL
kutxa

**Informe de Auditoría de Cuentas Anuales
emitido por un Auditor Independiente**

**LABORAL KUTXA RENTA FIJA
GARANTIZADO XI, FONDO DE
INVERSIÓN**

Cuentas Anuales e Informe de Gestión
correspondientes al ejercicio anual terminado
el 31 de diciembre de 2025



**The better the question.
The better the answer.
The better the world works.**



**Shape the future
with confidence**



Shape the future
with confidence

Ernst & Young, S.L.
Avda, Libertad 18, PI 1
20004 San Sebastián
España

Tel: 94 306 51 35
ey.com

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

A los partícipes de LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI, FONDO DE INVERSIÓN por encargo del accionista único de CAJA LABORAL GESTIÓN, S.A., S.G.I.I.C., Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal) (la Sociedad Gestora):

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI, FONDO DE INVERSIÓN (el Fondo que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2025, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera del Fondo a 31 de diciembre de 2025, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales* de nuestro informe.

Somos independientes del Fondo de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre estas, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Existencia y valoración de la cartera de inversiones financieras

Descripción De acuerdo con lo descrito en la Nota 1 de la memoria adjunta el objeto social del Fondo es la captación de fondos del público para gestionarlos e invertirlos en instrumentos financieros, en los que está fundamentalmente invertido su patrimonio (ver Nota 6), por lo que la cartera de inversiones financieras supone un importe significativo del activo del Fondo. Las políticas contables aplicables a la cartera de inversiones financieras se describen en la nota 3.d de la memoria adjunta.

Identificamos esta área como aspecto más relevante de nuestra auditoría del Fondo por la repercusión que la existencia y valoración de la cartera de inversiones financieras tiene en su patrimonio y, por tanto, en el cálculo diario del valor liquidativo del mismo.

Nuestra respuesta

Como parte de nuestra auditoría, hemos obtenido un entendimiento y evaluado los procedimientos de control interno implantados por la Sociedad Gestora del Fondo en relación con la existencia y valoración de la cartera de inversiones financieras.

Adicionalmente, hemos realizado procedimientos de auditoría sustantivos, entre los que destacan los siguientes:

- ▶ Hemos obtenido las confirmaciones de la entidad depositaria o contrapartes, según la naturaleza del instrumento financiero, para comprobar la existencia de la totalidad de las posiciones incluidas en la cartera de inversiones financieras del Fondo al 31 de diciembre de 2025, cotejándolas con los registros del Fondo.
- ▶ Hemos comprobado la valoración de la totalidad de la cartera de inversiones financieras, mediante el cotejo de los precios utilizados por la Sociedad Gestora del Fondo y los valores contabilizados por el Fondo, con precios obtenidos de fuentes externas o con datos observables de mercado.

Otra información: Informe de gestión

La otra información comprende exclusivamente el informe de gestión del ejercicio 2025, cuya formulación es responsabilidad de los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo y no forma parte integrante de las cuentas anuales.

Nuestra opinión de auditoría sobre las cuentas anuales no cubre el informe de gestión. Nuestra responsabilidad sobre el informe de gestión, de conformidad con lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas, consiste en evaluar e informar sobre la concordancia del informe de gestión con las cuentas anuales, a partir del conocimiento de la entidad obtenido en la realización de la auditoría de las citadas cuentas, así como en evaluar e informar de si el contenido y presentación del informe de gestión son conformes a la normativa que resulta de aplicación. Si, basándonos en el trabajo que hemos realizado, concluimos que existen incorrecciones materiales, estamos obligados a informar de ello.

Sobre la base del trabajo realizado, según lo descrito en el párrafo anterior, la información que contiene el informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2025 y su contenido y presentación son conformes a la normativa que resulta de aplicación.

Responsabilidad de los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo en relación con las cuentas anuales

Los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo son responsables de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados del Fondo, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales, los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo son responsables de la valoración de la capacidad del Fondo para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores de la Sociedad Gestora tienen intención de liquidar el Fondo o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- ▶ Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.
- ▶ Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno del Fondo.
- ▶ Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo.

- ▶ Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad del Fondo para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que el Fondo deje de ser una empresa en funcionamiento.
- ▶ Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la Sociedad Gestora del Fondo, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.



ERNST & YOUNG, S.L.

2026 Núm. 03/26/01393

SELLO CORPORATIVO: 96,00 EUR

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional

ERNST & YOUNG, S.L.
(Inscrita en el Registro Oficial de Auditores
de Cuentas con el Nº S0530)



Jaime Pallerols Cat
(Inscrito en el Registro Oficial de Auditores
de Cuentas con el Nº 22702)

21 de abril de 2026

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI
INBERTSIO FUNTSA
Urteko kontuak eta Kudeaketa Txostena
2025eko abenduaren 31n
bukatutako ekitaldikoak

AURKIBIDEA

- Balantzea, 2025eko abenduaren 31koa
- Galdu-irabazien kontua, 2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa
- Ondare garbiaren alaketen egoera-orria, 2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa
- Memoria, 2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa
- Kudeaketa Txostena, 2025ekoa
- Urteko kontuak eta Kudeaketa Txostena

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI
INBERTSIO FUNTSA

Balantzea,
2025eko abenduaren 31koa

AKTIBOA	Oharra	Eurotan		ONDAREA ETA PASIBOA	Oharra	Eurotan	
		2025	2024			2025	2024
AKTIBO KORRONTEA		11.584.915,39	25.462.169,91	PARTAIDE EDO AKZIODUNEI ESLEITUTAKO ONDAREA		11.557.064,08	25.426.775,54
Zordunak	5	-	-	Partaide edo akziodunei esleitutako funts itzulgarriak	8	11.557.064,08	25.426.775,54
Finantza-inbertsioen zorroa	6	9.783.478,51	25.305.554,21	Partaideak		11.119.963,04	24.754.558,63
Barruko zorroa		10.027.376,69	25.499.803,46	Erreserbak		-	-
Zorra adierazten duten baloreak		10.027.376,69	25.499.803,46	Aurreko ekitaldietako emaitzak		-	-
Ondare-tresnak		-	-	Ekitaldiko emaitza		437.101,04	672.216,91
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak		-	-	Esleitutako bestelako ondarea		-	-
Kreditu-erakundeetako gordailuak		-	-	PASIBO EZ-KORRONTEA		-	-
Deribatuak		-	-	Epe luzeko hornidurak		-	-
Bestelakoak		-	-	Epe luzeko zorrak		-	-
Kanpoko zorroa		-	-	Zerga geroratuengatikoko pasiboak		-	-
Zorra adierazten duten baloreak		-	-	PASIBO KORRONTEA		27.851,31	35.394,37
Ondare-tresnak		-	-	Epe laburreko hornidurak		-	-
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak		-	-	Epe laburreko zorrak		-	-
Kreditu-erakundeetako gordailuak		-	-	Hartzekodunak	9	27.851,31	35.394,37
Deribatuak		-	-	Finantza-pasiboak		-	-
Bestelakoak		-	-	Deribatuak		-	-
Inbertsio-zorroko interesak		(243.898,18)	(194.249,25)	Periodifikatzeak		-	-
Inbertsio berankor, zalantzak edo auzipekoak	6	-	-				
Periodifikatzeak		-	-				
Altxortegia	7	1.801.436,88	156.615,70				
AKTIBOA GUZTIRA		11.584.915,39	25.462.169,91	ONDAREA ETA PASIBOA GUZTIRA		11.584.915,39	25.462.169,91
OROIPEN-KONTUAK							
Konpromiso-kontuak	10	-	-				
Deribatuetako eragiketa luzeengatikoko konpromisoak		-	-				
Deribatuetako eragiketa laburrengatikoko konpromisoak		-	-				
Bestelako oroipen-kontuak		11.707.799,24	27.546.448,01				
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak mailegatutako baloreak		-	-				
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa ekarritako baloreak		-	-				
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa jasotako baloreak		-	-				
Konpentsatzeko galera fiskalak	11	1.898.799,24	2.118.448,01				
Bestelakoak		9.809.000,00	25.428.000,00				
OROIPEN-KONTUAK GUZTIRA		11.707.799,24	27.546.448,01				

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI
INBERTSIO FUNTSA

Galdu-irabazien kontua,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Oharra	Eurotan	
	2025	2024
Harpidetza edo itzultzeengatiko deskontu-komisioak	-	-
Inbertsio Kolektiboko Erakundeari osteratutako komisioak	-	-
Ustiapeneko bestelako gastuak	(88.265,49)	(93.117,12)
Gestio-komisioa	9 (59.520,52)	(62.800,63)
Gordailugilearen komisioa	9 (23.808,21)	(25.120,26)
Bestelakoak	(4.936,76)	(5.196,23)
Gehiegizko hornidurak	-	-
A.1.) USTIAPENeko EMAITZA	(88.265,49)	(93.117,12)
Finantza-sarrerak	232.140,22	226.917,72
Finantza-gastuak	-	-
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza	81.242,70	538.142,42
Barruko zorroko eragiketen ondorioz	81.242,70	538.142,42
Kanpoko zorroko eragiketen ondorioz	-	-
Deribatuekiko eragiketen ondorioz	-	-
Bestelakoak	-	-
Kanbio-diferentziak	-	-
Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza	214.180,10	3.651,86
Narriadurak	-	-
Barruko zorroko eragiketen emaitzak	214.191,10	3.351,25
Kanpoko zorroko eragiketen emaitzak	-	-
Deribatuekiko eragiketen emaitzak	(11,00)	300,61
Bestelakoak	-	-
A.2.) FINANTZA-EMAITZA	527.563,02	768.712,00
A.3.) ZERGA AURREKO EMAITZA	439.297,53	675.594,88
Mozkinen gaineko zerga	11 (2.196,49)	(3.377,97)
A.4.) Ekitaldiko emaitza	437.101,04	672.216,91

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI
INBERTSIO FUNTSA

Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

a) KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA, 2025EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

	Eurotan	
	2025	2024
Galdu-irabazien kontuaren emaitza	437.101,04	672.216,91
Partaide eta akziodunei esleitutako ondare garbira zuzenean egotzitako sarrera eta gastuak guztira	-	-
Galdu-irabazien konturako transferentziak guztira	-	-
KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	437.101,04	672.216,91

b) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA-ORRIA, 2025EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

	Eurotan				
	Partaideak	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	GUZTIRA
A. SALDOA, 2023ko abenduaren 31n	24.238.600,94	-	-	742.017,04	24.980.617,98
I. Kontabilizatutako sarrera eta gastuak guztira	-	-	-	672.216,91	672.216,91
II. Partaideekiko eragiketak					
1. Harpidetzak	-	-	-	-	-
2. (-) Itzultzeak	(226.059,35)	-	-	-	(226.059,35)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak					
2023ko ekitaldiko emaitzaren banaketa	742.017,04	-	-	(742.017,04)	-
B. SALDOA, 2024ko abenduaren 31n	24.754.558,63	-	-	672.216,91	25.426.775,54
I. Kontabilizatutako sarrera eta gastuak guztira	-	-	-	437.101,04	437.101,04
II. Partaideekiko eragiketak					
1. Harpidetzak	68.227,87	-	-	-	68.227,87
2. (-) Itzultzeak	(14.375.040,37)	-	-	-	(14.375.040,37)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak					
2024ko ekitaldiko emaitzaren banaketa	672.216,91	-	-	(672.216,91)	-
C. SALDOA, 2025eko abenduaren 31n	11.119.963,04	-	-	437.101,04	11.557.064,08

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

1. IZAERA ETA JARDUERA NAGUSIAK

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI Inbertsio Funtsa (aurrerantzean, Funtsa) 1998ko abuztuaren 4an eratu zen Espainian. Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose M. Arizmendiarieta pasealekua 5, 1.a, 20500— du egoitza soziala.

Arau hauek jasotzen dute Funtsaren oinarritzko araudia: 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeak arautzen dituenak, eta hura garatzen duen Erregelamenduak, 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartu duenak. Halaber, aipatutako arau horiek garatzen, ordeztzen edo aldatzen dituzten xedapenei eta beste lege-arau batzuei lotuta dago Funtsa, eta, bereziki, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMVk) inbertsio kolektiboko erakundeak arautzeko igorritako zirkularrei.

1998ko maiatzaren 8tik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren administrazio-erregistroan dago erregistratuta, 1.430 zenbakiarekin.

2025eko azaroaren 28an, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena eman zuen Laboral Kutxa Ahorro Corto Plazo IF funtsak (funts xurgatzaileak) Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado XI IF, Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado X IF eta Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado XVIII IF (funts xurgatuak) xurgatzearen bidezko bat-egitea gauzatzeko, Caja Laboral Gestion SGIIC SAs, erakunde gestorea den aldetik, eta Caja Laboral Popular Coop. de Creditok, entitate gordailuzaina den aldetik, eskatuta (15. oharra).

Funtsaren helburu sozial bakarra da publikoaren funtsak, ondasunak edo eskubideak biltzea, kudeatzeko eta ondasunetan, eskubideetan, baloreetan edo bestelako tresnetan —finantzarioak ala ez— inbertitzeko, betiere inbertitzailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada.

Funtsaren inbertsio-politika zehaztuta dagoen liburuxka Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren dagokion erregistroan dago erregistratuta eta jendearen eskura.

Indarrean dagoen araudiak alderdi hauek arautzen ditu, besteak beste:

- Gutxienez 3 milioi euroko ondarea mantentzea.
- Merkatu arautuetan edo negoziatzeko sistema multilateraletan kotizatzeko onartutako balore negoziagarrietan eta finantza-tresnetan inbertitzea, edozein estatutakoak direla ere, baldin eta indarreko legerian adierazitako baldintzak betetzen badituzte. Orobat, banku-gordailuetan, inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuen akzioetan eta partaidetzetan, finantza-tresna deribatuetan, diru-merkatuko tresnetan eta kotizatu gabeko baloreetan ere inbertitu ahal izango da.
- Finantza-tresna deribatuetan egiten diren inbertsioak 1082/2012 Errege Dekretuaren 52. artikuluan —tresna horiek erabiltzeko muga jakin batzuk ezartzen ditu— arautzen dira, bai eta 2008ko martxoaren 27ko EHA 888/2008 Aginduan, finantza-izaerako inbertsio kolektiboko erakundeek finantza-tresna deribatuarekin egindako eragiketei buruzkoan, ere, aurreko Errege Dekretuaren kontrakoa ez den guztian.
- Inbertsioen kontzentrazioarako gehieneko ehunekoak finkatzea.
- Balore-zorroa entitate gordailuzainaren zaintzapean egoteko betebeharra.
- 100 partaidetik gora izatea.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

- 3/2008 Zirkularren 21. arauan aipatzen diren ezkutuko informazioaren egoera-orriak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidaltzea, arau horretan adierazitako epean.
- Zergak ordaintzeko araubide berezia.

Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado XI IF errendimendu finkoko funts bermatua da, eta hauxe bermatzen die partaideei muga-egunean (2025eko urriaren 31n): 2018ko abuztuaren 31ko hasierako likidazio-balioaren % 103,65. UTBa % 0,50ekoa izango da, 2018ko abuztuaren 31n egindako harpidetzetarako. Gainerako harpidetzetarako, UTBa harpidetza-egunaren araberkia izango da.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito konpromisoa eta obligazioa hartu du Funttsaren aurrean, dagokionean beharrezko zenbatekoa ordaintzeko, 2025eko urriaren 31ko partaidetzen likidazio-balioa Funttsak partaideei bermaturiko likidazio-balioaren parekoa izan dadin.

Funttsa kudeatzearen eta administratzearen ardura Caja Laboral Gestión SGIIC SAn esku dago. Helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta 5, 1.a, 20500— du, eta 161 zenbakiarekin inskribatuta dago Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Inbertsio Kolektiboko Erakunde Sozietate Gestoreen Administrazio Erregistroan.

Baloreak Caja Laboral Popular Coop. de Crédito daude gordailututa, entitate hori baita Funttsaren gordailuzaina. Helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta zk.g., 20500— du, eta 237 zenbakiarekin inskribatuta dago Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Inbertsio Kolektiboko Erakunde Sozietate Gestoreen Administrazio Erregistroan.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi fidela

Urteko kontuak Funttsaren kontabilitate-erregistroetatik lortu dira, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 2008ko irailaren 11ko 3/2008 Zirkularrean jasotako kontabilitate-printzipioen eta balioesteko arauen arabera formulatu dira, Funttsaren 2025eko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren eta data horretan amaitutako ekitaldiko eragiketen emaitzen irudi fidela erakusteko.

Sozietate Gestorearen Administrazio Kontseiluak formulatu ditu ekitaldiko urteko kontuak, eta horiek onartu ala ez erabaki beharko da. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko direla uste dugu.

Urteko kontuetan jasotako zifrak eurotan adierazita daude, bi dezimalekin, kontrakoa adierazi ezean.

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu hauek egiteko, nagusiki Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 3/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan jasotako kontabilitate- eta sailkapen-printzipio eta -irizpideak erabili dira. Printzipiorik nabarmenenak 3. oharrean deskribatu ditugu. Nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipioei dagokienez, urteko kontu hauetan eragin nabarmena duen bakar bat ere ez da utzi aplikatu gabe.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

c) Urteko kontuak egiteko erabilitako judizioak eta estimazioak

Funtsaren urteko kontuak egiteko, Sozietate Gestoreko Administrazioaileek judizioak, estimazioak eta onarpenak egin behar izan dituzte, eta horiek eragina izan dute kontabilitate-politiken aplikazioan, eta urteko kontu hauek jaulkitzean zeuden aktiboen, pasiboen, sarreraren, gastuen eta konpromisoen saldoetan. Estimazio horiek finantza-aktibo jakin batzuen arrazoizko balioari eta izan daitezkeen narriaduragatiko galerei buruzkoak dira, nagusiki.

Egindako estimazioak eta onarpenak esperientzia historikoan oinarrituta daude, bai eta inguruabarren arabera arrazoizkotzat hartzen diren beste faktore batzuetan ere, eta horien emaitzak dira beste iturri batzuen bidez erraz eskuratu ezin diren aktiboen eta pasiboen kontabilitate-balioari buruzko judizioak ezartzeko oinarria. Estimazioak eta onarpenak etengabe berrikusten dira. Hala ere, estimazioek eta onarpenek berez dakarten ziurgabetasunaren ondorioz, aktibo eta pasibo horien balioak doitzea eska dezaketen emaitzak lor daitezke. Berrikuspen horiek edo etorkizuneko gertaerek eraginda estimazio horiek aldatzen badira, horien efektua epealdi horretako eta ondorengo epealdietako galdu-irabazien kontuan erregistratuko da.

d) Informazioaren konparaketa

2025eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko informazioa aurreko urtekoarekin alderatzeko, 2024ko ekitaldiko zifrak erantsi dira balantzean, galdu-irabazien kontuan eta ondare garbiaren aldaketan egoera-orrian. Urteko kontu hauetan jasotako 2024ko ekitaldiko zifrak alderaketa egiteko helburu bakarrekin aurkezten dira.

3. ERABILITAKO KONTABILITATE-PRINTZPIOAK ETA BALIOESTEKO ARAUAK

Hauek dira urteko kontuok egitean erabilitako kontabilitate-printzipio nagusiak:

a) Jarduneko enpresa

Caja Laboral Gestión SGIIC Saren Administrazio Kontseiluaren iritziz, Funtsaren kudeaketak etorkizunean ere aurrera jarraituko du, eta, beraz, kontabilitate-printzipioak eta -irizpideak erabiltzearen helburua ez da ondare garbiaren balioa ezartzea —ondare osoa edo zati bat transmititzeari begira— edo likidazioa eginez gero emango lukeen zenbatekoa finkatzea.

Dena den, Funtsaren izaera espezifiko eta irekia kontuan hartuta, partaidetzen likidazio-balioa zehaztea izango da kontabilitate-arauen helburua.

b) Sarrerak eta gastuak kontabilizatzea

Sarrerak eta gastuak sortzapen-printzipioaren arabera kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan, edozein dela ere kobratzeko edo ordaintzeko data.

Irizpide hori erabilia, eta likidazio-balioa kalkulatzeko, honela egiten dira sarreraren eta gastuen periodifikatzeak egunero:

- Finantza-inbertsioen interes aktiboak eragiketen errentagarritasunaren barne-tasaren arabera periodifikatzen dira.
- Dibidenduengatiko sarrerak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, horiek jasotzeko eskubidea aitortzen den egunean.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

- Epealdi bati dagozkion gainerako sarrerak edo gastuak linealki periodifikatzen dira epealdi horretan zehar.

Finantza-aktiboen zorrotik datozen interesak —edozein motatakoak direla ere— aktiboen «Inbertsio-zorroko interesak» kontuan zordunketa eginez eta, aldi berean, galdu-irabazien kontuan abonatuz periodifikatzen dira.

c) Zordunak

Hasierako balioespena arrazoizko balioan egiten da, eta, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da. Prezio hori kalkulatzeko, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehitzen zaie zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuei.

Ondorengo balioespena aktiboen kostu amortizatuaren arabera egiten da; sortutako interesak, berriz, galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Edonola ere, urtebete baino lehen jasotzea espero diren kontu-sailak balio nominalaren arabera balioesten dira.

Kobratzeko kontu-sailen balioa narriatzeagatiko galerak kalkulatzeko, balioetsitako etorkizuneko eskudiru-fluxuak hartzen dira aintzat, kontabilizazioa egitean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta itzulerak gastu edo sarreratzat hartzen dira galdu-irabazien kontuan.

d) Finantza-inbertsioen zorroa

Finantza-aktiboak balantzean kontabilizatzen dira, Funtsa kontratuaren edo negozio juridikoaren alderdi obligaziodun bihurtzen denean, haren xedapenen arabera.

Honela sailkatzen dira finantza-aktiboak:

- Zorra adierazten duten baloreak
- Ondare-tresnak
- Inbertsio Kolektiboko Erakundeak
- Kreditu-erakundeetako gordailuak
- Tresna deribatuak
- Bestelakoak

Sailkapena

Funtsak inbertitzeko aukeratzen dituen finantza-aktiboak, haien balioespenari begira, «Galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» atalean sailkatzen dira.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Finantza-inbertsioen zorroa osatzen duten tituluak, hasiera batean, irizpide hauen arabera kontabilizatzen dira:

Hasierako balioespena

- Funtsaren zorroa osatzen duten finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera balioetsiko dira, printzipioz. Arrazoizko balio hori, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da. Prezio hori kalkulatzeko, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehitzen zaie eragiketari zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostu zehatzei.

Hasierako balioespen horretatik kanpo geratzen dira ordainketa geroratzeagatikiko interesak; izan ere, kontratuan berariaz agertu ez arren, sortu egiten dira —kasu horretan, merkatuarena hartzen da interes-tasatzat—.

- Aktiboen hasierako balioespenean, azken likidaziotik sortutako eta mugaeguneratu gabeko —«kupoi korritua»— interes esplizituak balantzeko aktiboko «Inbertsio-zorroko interesak» finantza-inbertsioen zorroaren kontuan erregistratzen dira, eta kupoi hori mugaeguneratzen denean ezerezten dira.
- Harpidetza-eskubideen eta antzekoen zenbatekoa —halakorik eskuratu bada— hasierako balioespenaren barruan sartzen dira.
- Atzerri-diruan egindako inbertsioak tituluak eskuratzen diren egunean indarrean dagoen kanbio-tasan kontabilizatzen dira.
- Dagokionean, gerokoekin egindako kontratuak eta eperako salerosketa-eragiketak konpromiso-kontuetan erregistratzen dira, kontratatzen direnean eta posizioa itxi arte edo kontratua mugaeguneratu arte, dagokionaren arabera. Benetan konprometitu den zenbatekoa idazten da. Berme gisa gordailututako funtsak «Deribatuen merkatu antolatuetako berme-gordailuak» edo «Bestelako berme-gordailuak» balantzeko aktiboan kontabilizatzen dira, «Zordunak» epigrafean. Gordailututako funts horien interesak egunero periodifikatzen dira, errentagarritasunaren barne-tasaren arabera. Funtsak bermetan emandako baloreen arrazoizko balioa oroipen-kontuetan erregistratzen da, «Berme gisa ekarritako baloreak» epigrafean.
- Dagokionean, baloreen gaineko aukerak eta warrantak oroipen-kontuetan dagokien epigrafean erregistratzen dira, kontratatzen direnean eta posizioa itxi arte edo kontratua mugaeguneratu arte. Konprometitu den zenbatekoa idazten da. Funtsak baloreak eta eskudirua ematen baditu berme gisa, gerokoekin kontratuen kontabilitate-tratamendu bera emango zaio. Berme gisa gordailututako funtsak balantzeko aktiboan kontabilizatzen dira, «Zordunak» partidan. Erositako aukera eta warranten ondoriozko primak eta jaulkitako aukeren eta saldutako warranten ondoriozkoak balantzeko aktiboko edo pasiboko «Deribatuak» kontuan jasotzen dira hurrenez hurren, eragiketa egin zen datarekin.
- Dagokionean, finantza-trukeko eragiketak oroipen-kontuetan dagokien epigrafean erregistratzen dira, kontratatzen direnean eta posizioa itxi arte edo kontratua mugaeguneratu arte. Kontratuan jasotako zenbatekoa idazten da. Finantza-trukeko kontratu bakoitzari lotutako kobrantzak edo ordainketak kontabilizatzeko, balantzeko aktiboko edo pasiboko barruko nahiz kanpoko zorroko «Deribatuak» kontua edo balantzearen pasiboa erabiltzen dira kontrapartida gisa, dagokionaren arabera.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Geroko balioespena

Finantza-aktiboak arrazoizko balioan balioesten dira egunero, haien besterentzean sortzen diren transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak galdu-irabazien kontuan egozten dira. Sortutako interes esplizituak arrazoizko balioan sartzen direnean, «Inbertsio-zorroko interesak» kontuko saldoak hartzen dira kontuan, arrazoizko balioaren aldaketak zehazteko. Finantza-aktiboen arrazoizko balioa zehazteko, arau hauek hartzen dira kontuan:

- Kotizatutako ondare-tresnak. Haien arrazoizko balioa da beraien merkatu-balioa; hain zuzen ere, erreferentzia-eguneko (baldin badago) edo aurreko laneguneko itxierako kanbio ofiziala, eta, itxierako prezio ofizialik ez badago, aurrez balioetsitako batez besteko kanbioa.
- Zorra adierazten duten balore kotizatuak. Balore horien arrazoizko balioa merkatu bateko kotizazio-prezioa da, baldin eta merkatu hori aktiboa bada eta prezioak modu tinkoan lortzen badira. Kotizazio-preziorik ez dagoenean, transakzioaren prezio berriena izango da arrazoizko balioa, baldin eta transakzioaren unetik baldintza ekonomikoetan ez bada aldaketa handirik gertatu. Kasu horretan, arrazoizko balioak baldintzen aldaketa hori islatuko du. Merkatu aktiborik ez badago, orokorrean onartutako balioespen-teknikak erabiliko dira, merkatuan ikus daitezkeen datuak —bereziki, interes-tasaren egungo egoera eta jaulkitzailearen kreditu-arriskua— ahalik eta gehien erabiltzen dituztenak.

Zor-tresnarako merkatu aktiborik ez badago, balioespen-teknika hauek erabiltzen dira: bitartekariek, jaulkitzaileek edo informazio-hedatzaileek emandako prezioak; alderdi interesdunen artean elkarrekiko independentziaz eta behar bezala informatuta egindako merkatuko oraintsuko transakzioak (eskuragarri badaude); funtsean bera den beste tresna baten egungo arrazoizko balioa, edo, dagokionean, fluxuen deskontu-ereduak eta aukeren balioespenak.

- Oraindik kotizatzeko onartu gabeko baloreak. Haien arrazoizko balioa entitate beraren aurreko jaulkipenetako antzeko baloreen kotizazioen ondoriozko aldaketen bidez kalkulatzen da, haien eskubide ekonomikoetan dauden desberdintasunak kontuan hartuta.
- Kotizatu gabeko baloreak. Arrazoizko balioa 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren 49. artikuluan jasotako balioespen-irizpideen arabera kalkulatzen zaie.
- Kreditu-erakundeetako gordailuak. Haien arrazoizko balioa kalkulatzeko, inbertsioaren errentagarritasunaren barne-tasa merkatuan une bakoitzean indarrean dauden tasekin berdintzen duen prezioa erabiltzen da. Dena den, beste elementu batzuk ere hartzen dira kontuan; esate baterako, ezerezte aurreraturako baldintzak eta entitatearen kreditu-arriskua.
- Beste inbertsio kolektiboko erakunde batzuen akzio edo partaidetzen kasuan, balioespen-egunean argitaratutako azken likidazio-balioaren arabera ezartzen da arrazoizko balioa.
- Atzerri-diruan egindako inbertsioak Europako Banku Zentralak edo, dibisaren arabera, merkaturik adierazgarrienek argitaratutako itxierako kanbio-tasaren arabera balioesten dira.
- Finantza-tresna deribatuak. Arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, eta balio hori erreferentzia-eguneko itxierako kanbio ofizialak finkatzen du. Behar bezain likidoa den merkaturik ez badago, edo merkatu arautuetan edo negoziatzeko sistema multilateraletan negoziatu gabeko tresna deribatuak badira, balioespen-metodo edo -eredu egoki eta aintzatetsien bidez balioetsiko dira. Metodo edo eredu horiek inbertsio kolektiboko erakundeen araudian tresna deribatuen eragiketei buruz ezarritako betekizun eta baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Ezereztea

Finantza-aktiboei, horien diru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak iraungitzen edo lagatzen direnean ematen zaie baja Funttsaren balantzetik. Horretarako, beharrezkoa da haien jabetzari atxikitako arrisku eta onurak substantzialki transferitzea, edo, horien transmisio edo atxikipen substantzialik ez egon arren, finantza-aktiboaren kontrola transmititzea.

Edonola ere, hauei emango zaie baja, besteak beste:

- a) Irmoki edo baldintzarik gabe saldutako finantza-aktiboei.
- b) Berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentei, berrerosteko datan duten arrazoizko balioan.
- c) Inbertsioa nabarmen eta berreskuratzeko modurik gabe narriatu zaien aktiboei, galdu-irabazien kontuaren kargura.

Finantza-aktiboari aurreko a) eta b) idatz-zatien arabera baja ematen zaionean, egoztekoak diren transakzio-kostuetatik jasotako kontraprestazio gordinaren —lortutako aktibo berriak ken asumitutako pasiboak— eta finantza-aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko diferentziak zehazten du aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera, eta baja ematen zaion ekitaldiko emaitzan jasoko da.

Funttsak ez die finantza-aktiboei baja ematen, haien jabetzari dagozkion arriskuak eta onurak substantzialki atxikitzen dituen lagapenetan; hona hemen zenbait adibide:

- a) Berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentak, prezio finko batean edo salmenta-prezioari interes bat gehituta.
- b) Balore-mailegu baten esparruan mailegatutako finantza-aktiboak, baldin eta mailegu-hartzailea behartuta badago aktibo berak, funtsean berdinak diren beste batzuk edo arrazoizko balio bera duten antzeko beste batzuk itzultzeko.
- c) Finantza-bermearen akordio baten esparruan lagatako finantza-aktiboak, salbu eta kontratuaren baldintzak betetzen ez badira eta berme gisa dauden aktiboak berreskuratzeko eskubidea galtzen bada; kasu horretan, baja emango zaie aktibo horiei.

a) eta b) kasuetan, jasotako kontraprestazioagatiko pasibo bat kontabilizatzen du Funttsak.

b) eta c) kasuetan, Funttsak berme gisa mailegatutako edo lagatako aktiboen arrazoizko balioa kontabilizatzen du balantzeko «Oroipen-kontuak» epigrafean.

Narriadura

Funttsak egunero egingo ditu beharrezko balio-zuzenketak, baldin eta aktiboaren balioa narriatu izanaren ebidentzia objektiboa badago, eta balioetsitako etorkizuneko diru-fluxuetan murrizketa edo atzerapena gertatzen bada zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz.

Narriaduragatiko galerak kalkulatzeko, zenbatetsitako etorkizuneko eskudiru-fluxuak hartzen dira aintzat, kontabilizazioa egitean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta itzulerak gastu edo sarreratzat hartzen dira galdu-irabazien kontuan.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

e) Aktiboen aldi baterako eskurapena

Kontabilitate-ondoreetarako, aktiboak aldi baterako eskuratzeko eragiketa haien ordainketa egiten den egunean sortzen da, eta itun hori ebazten den egunean amaitzen da. Aldi baterako eskurapenak ikustean mugaeguneratzen direla ulertzen da, baldin eta horiek nahitaez berrerosi behar badira, baina epealdi batean zehar eska badaiteke berrerosketa.

Eragiketa horiek balantzeko aktiboko kontuetan kontabilizatzen dira, ordaindutako zenbateko efektiboaren arabera. Zenbateko horren eta osteratagapenaren prezioaren arteko diferentzia interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatzen da.

Aktiboen aldi baterako eskurapenean arrazoizko balioan egunero sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuko «Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza» epigrafean egozten dira.

f) Gerokoen kontratuak, eperako salerosketa-eragiketak eta finantza-trukeko eragiketak

Kontratu horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketengatiko diferentziak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: ordainketak edo diferentzia positiboak eta kobrantzak edo diferentzia negatiboak «Deribatuekiko eragiketen emaitzak» edo «Deribatuekiko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» kontuetan erregistratzen dira, balio-aldakuntzak likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboko edo pasiboko barruko nahiz kanpoko zorroko «Deribatuak» kontua erabiltzen da.

Kontratuak eguneko likidazioa duen kasuetan, dagozkion diferentziak «Deribatuekiko eragiketen emaitzak» kontuan kontabilizatzen dira.

g) Aukerak eta warrantak

Erositako aukera eta warranten ondoriozko primak eta jaulkitako aukeren edo saldutako warranten ondoriozkoak balantzeko aktiboko edo pasiboko «Deribatuak» kontuan jasotzen dira hurrenez hurren, eragiketa egin zen datarekin. Kontratuaren balioan gertatutako aldaketengatiko diferentziak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: ordainketak edo diferentzia positiboak eta kobrantzak edo diferentzia negatiboak «Deribatuekiko eragiketen emaitzak» edo «Deribatuekiko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» kontuetan erregistratzen dira, aldakuntzak likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboko edo pasiboko barruko nahiz kanpoko zorroko «Deribatuak» kontua erabiltzen da.

Baloreen gaineko eragiketen kasuan, aukera gauzatzen bada, erositako edo saldutako azpiko aktiboaren hasierako edo ondorengo balioespenean txertatzen da haren balioa, eta ezingo du azpiko aktiboaren arrazoizko balioa gainditu. Arau honetatik kanpo geratzen dira diferentzien arabera likidatzen diren eragiketak. Eskurapenaren kasuan, ordea, hasierako balioespenak ezin du gainditu azpiko aktiboaren arrazoizko balioa, eta diferentzia galera gisa erregistratzen da galdu-irabazien kontuan.

h) Atzerri-dirua

Euroa da Funttsaren diru funtzionala eta aurkezpen-dirua.

Funttsaren diruzko partidatzat hartzen dira altxortegia, zorra adierazten duten baloreak, eta finantza-tresnen zorrotik kanpoko zordunketak eta kredituak.

Dirukoak ez diren partidatzat hartzen dira aurreko paragrafoan sartzen ez direnak; besteak beste, finantza-tresna deribatuak eta ondare-tresnak.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Atzerri-dirutako saldo aktibo eta pasiboak Europako Banku Zentralak edo, dibisaren arabera, merkaturik adierazgarrienek argitaratutako itxierako kanbio-tasaren arabera balioesten dira. Kanbio historikoarekiko diferentziak honela erregistratzen dira:

- Finantza-tresnen zorroa osatzen duten diruzko partidak eta diruzkoak ez direnak balioespen-eguneko edo, bestela, aurreko azken egun balioduneko eskudirutako kanbio-tasaren arabera balioesten dira.

Altxortegiari eta zordunketei edo kredituei dagozkien diruzko partidetarako, prozesuan sortzen diren kanbio-diferentziak, positiboak zein negatiboak, «Kanbio-diferentziak» epigrafean kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan.

- Finantza-tresnen zorroa osatzen duten eta diruzkoak diren eta ez diren gainerako partidetan, kanbio-diferentziak balioespenaren ondoriozko galdu-irabaziekin batera hartzen dira.
- Aurretik jaso gabeko diruzkoak ez diren partidak balioesteko, hasierako erregistro-dataren kanbio-tasa aplikatzen da.

i) Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak balantzean kontabilizatzen dira, Funtsa kontratuaren edo negozio juridikoaren alderdi obligaziodun bihurtzen denean, haren xedapenen arabera.

Funtsak jaulkitako, egindako edo bereganatutako finantza-tresnak finantza-pasibo gisa sailkatzen dira, osotasunean edo zati batean, baldin eta, beren errealitate ekonomikoaren arabera, zuzeneko edo zeharkako kontratu-betebeharren bat badute, Funtsari eskudirua edo beste finantza-aktibo bat emateko, edo hirugarrenekin finantza-aktibo edo -pasiboak trukatzeko, kontrakoak izan daitezkeen baldintzetan. Orobat, finantza-pasibotzat hartzen dira partaidetzak esleitzeko dituzten harpidetza-eskaerak eta komisioen ekualizazioagatiko saldo hartzekodunak.

Sailkapena

Finantza-pasiboak, balioespenaren ondoreetarako, zordunketa eta ordaindu beharreko partida gisa sailkatzen dira, salbu eta tresna deribatuen, maileguan jasotako baloreen salmenta bidezko finantzaketaren, eta aldi baterako eskuratutako aktiboak nahiz Funtsari berme gisa emandako aktiboak irmoki saltzean sortutako pasiboen kasuan; pasibo horiek «galdu-irabazietan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» kategorian sartzen dira.

Hasierako eta osteko balioespena

- Zordunketak eta ordaindu beharreko partidak. Hasieran, arrazoizko balioaren arabera balioesten dira; alegia, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioan. Horretarako, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioari zuzenean egoztekoak zaizkien transakzio-kostuak gehitzen zaizkio.

Osteko balioespena amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan. Edonola ere, urtebete baino lehen ordaintzea espero diren partidak balio nominalaren arabera balioets daitezke, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina nabarmena ez bada.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

- Galdu-irabazietan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan. Kategoria honetan sartutako pasiboen hasierako eta osteko balioespena «galdu-irabazietan aldaketak eragiten dituzten aktiboak arrazoizko balioan» kategoriarako adierazitako irizpideen arabera egiten da (ikusi ohar honen d) atala).

Maileguan jasotako baloreen salmenta bidezko finantzaketari eta aldi baterako eskuratutako aktiboen edo berme gisa emandako aktiboen salmenta irmoan sortutako pasiboei dagokienez, berrerosi beharreko aktiboen arrazoizko balioari erreparatzen zaio, mailegua itzultzeko edo aldi baterako eskuratutako edo berme gisa emandako aktiboak itzultzeko.

Ezereztea

Funtsak betebeharra iraungitzen denean ematen dio baja finantza-pasibo bati. Finantza-pasiboaren kontabilitate-balioaren edo baja eman zaion haren zatiaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea —transakzio-kostu egozgarriak eta bereganatutako eskudirua edo pasiboa ez den lagatako beste edozein aktibo barne hartuta—, gertatzen den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen da.

j) Likidazio-balioa

Funtseko partaidetzen likidazio-balioa egunero kalkulatzen da, honela: ondarea —Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 6/2008 Zirkularrean eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 78. artikuluan ezarritako arauen arabera zehaztua— zati kalkuluaren egunean zirkulazioan dauden partaidetzen kopurua eginez.

k) Harpidetzak eta itzultzeak

Benetan harpidetu edo itzultitako kopuruarekin kontabilizatzen dira, eta Funtsaren balantzeko pasiboko «Partaideak» atalean ordaindu edo zordundu, kasuan kasukoa.

Liburuxkan jasotakoari jarraituz, interesdunak eskaera egin duen eguneko edo hurrengo egun balioduneko likidazio-balioarena izango da partaidetzen prezioa, eta horrela finkatuko dira bai harpidetu nahiz itzultitako partaidetzen kopurua, bai dagokionean itzuli beharreko eskudirua.

Partaidetzak eskatzen direnetik horien salneurria finkatzen den arteko epealdian, eskatutako zenbatekoa Funtsaren balantzeko aktiboko «Zordunak partaidetzak harpidetzeagatik» atalean erregistratzen da, edo, dagokionean, Funtsaren balantzeko pasiboko «Bestelako hartzekodunak» atalean.

Ekitaldi ekonomikoa amaitu ondoren, Funtsaren ekitaldiko emaitza —irabaziak edo galerak, eta, irabazien kasuan, emaitza dibidendutan banatzen ez bada— Funtsaren ondareko «Partaideak» kontuaren saldoari egozten zaio.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

l) Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zerga, oro har, galdu-irabazien kontuan kontabilizatu beharreko gastutzat hartzen da, eta honako hauek osatzen dute: zerga korrontearengatiko gastuak edo sarrerak eta zerga geroratuarengatiko gastuak edo sarrerak. Zerga korrontea bat dator Funtsak mozkinen gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaintzen duen zenbatekoarekin, behin kenkariak, fiskalki aplikatzeko dauden beste abantaila fiskal batzuk eta galera fiskalak konpentsatzeko eskubidea kontuan hartuta, eta atxikipenak eta konturako ordainketak kontuan hartu gabe. Zerga geroratuarengatiko gastua edo sarrera bat dator zerga geroratuarengatiko pasibo eta aktiboak kontabilizatzearekin eta ezereztearekin; pasibo eta aktibo horiek ondare-elementuen kontabilitate- eta zerga-balioespenaren ondoriozko denbora-diferentzietatik sortzen dira. Denbora-diferentzia zergapegarriek —etorkizuneko ekitaldietan zergagatik gehiago ordaintzea edo itzulketa txikiagoa jasotzea eragiten dute— zerga geroratuengatiko pasiboak sortzen dituzte; bestalde, denbora-diferentzia kengarriek —etorkizuneko ekitaldietan zergagatik gutxiago ordaintzea edo itzulketa handiagoa jasotzea eragiten dute—, kenkarien ondoriozko kredituek eta fiskalki aplikatu gabe dauden abantaila fiskalek zerga geroratuengatiko aktiboak sortzen dituzte.

2008ko irailaren 11ko 3/2008 Zirkularrak 17. arauan ezartzen duenez, zerga geroratuengatiko pasiboak beti kontabilizatzen dira. Aitzitik, zerga geroratuarengatiko aktiboak kasu honetan soilik kontabilizatzen dira: Funtsak etorkizuneko irabazi fiskalak izateko eta, horrenbestez, aktibo horiek aplikatzeko probabilitatea badago. Galera fiskalen ondorioz hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideek ez dakarte berekin, inola ere, zerga geroratuarengatiko aktibo bat kontabilizatzea, eta gastua zergaren arabera konpentsatuz kontabilizatzen dira soilik, Funtsak emaitza positiboak dituenean. Konpentsazio hori, aplikatzen denean, egunero egiten da, eta galera fiskal konpentsagarriei karga-tasa ezarri kalkulatu da. Nolanahi ere, konpentsa daitezkeen galera fiskalak «Oroipen-kontuak» epigrafean erregistratzen dira.

Halaber, eta partaidetza bakoitzaren likidazio-balioa kalkulatzeko, mozkinen gaineko zergarako hornidura egiten da egunero.

4. FINANTZA-TRESNEN ERAGIKETEI LOTUTAKO ARRISKUA

Funtsaren jarduerak berezkoa dute arriskua, baina Sozietate Gestoreak kudeatzen du, etengabeko identifikazio-, neurketa- eta jarraipen-prozesu baten bidez, eta muga eta kontrol jakin batzuk betetzen direla egiaztatuta. Prozesu hori berebizikoa da Funtsaren eragiketek jarraipena izango badute. Funtsaren inbertsio-politika eta atxikita dituen arrisku nagusien deskribapena erregistratutako liburuxkan jasota daude. Liburuxka hori jendearen eskura dago, CNMV erakundean horretarako gaitutako erregistroetan.

Funtsak arrisku hauek ditu zorroan dituen finantza-tresnekin egindako eragiketen ondorioz: merkatu-arriskua —interes-tasaren, prezioaren eta kanbio-tasaren arriskuak barne—, kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta jasangarritasun-arriskua. Ildo horretan, 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak esposizio hori mugatzen duten zenbait arau-koefiziente ezartzen ditu, Funtsaren Sozietate Gestoreak kontrolatzen dituenak. Hauek dira Funtsak bete beharreko arau-koefiziente nagusiak:

- Inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetan inbertitzeko mugak

IKE bakarrak jaulkitako akzio edo partaidetzetan egindako inbertsioak ezingo du ondarearen % 20 gainditu, funts bakarrean inbertitzeko inbertsio-politika duten IKEen kasuan izan ezik. Orobat, 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren 48.1.d) artikuluan aipatutako IKEetan, 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera baimenduta ez daudenetan, gutzizko inbertsioak ezingo du Funtsaren ondarearen % 30 gainditu.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

- Balore kotizatuetan inbertitzeko muga orokorra
 - a) Jaulkitzaile berak jaulkitako edo abalatutako aktibo eta finantza-tresnetan egindako inbertsioak ezingo du Funtsaren ondarearen % 5 gainditu. Muga hori % 10era handituko da, baldin eta % 5etik gorako inbertsioa duten jaulkitzaileetan guztira egindako inbertsioak Funtsaren ondarearen % 40 gainditzen ez badu.
 - b) Ondarearen % 35etik gora inbertitu ahal izango da, Europar Batasuneko estatu batek, autonomia-erkidego batek, toki-erakunde batek, Espainia kide duten nazioarteko erakundeek eta Espainiako erresumakoa baino kaudimen-sailkapen txikiagoa —onartutako ospea duen arriskuak kalifikatzen espezializatutako agentzia batek emana— ez duten estatuek jaulki edo abalatutako baloreetan.

Halaber, erakunde gestoreak jaulkipen horren azterketa sakona egin beharko du, kaudimena egiaztatzeko. Balore horietan ondarearen % 100 inbertitu ahal izateko, gutxienez sei jaulkipenetan dibertsifikatu beharko da, eta jaulkipen bereko baloreetan inbertsioak ez du gaindituko aktiboaren % 30.

% 35eko muga gainditu nahi bada, argi eta garbi adierazi beharko da hori Funtsaren liburuxkan, eta zehaztu beharko da zer jaulkitzailearen baloreetan inbertitu nahi den edo inbertituta dagoen ondarearen % 35etik gora.

- c) Muga % 25era zabalduko da egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean duten kreditu-erakundeek jaulkitako obligazioetan inbertituz gero, baldin eta jaulkipenaren konpromisoak behar bezala betetzen dituzten aktiboek bermatzen badute inbertsioaren zenbatekoa, eta, jaulkitzailea konkurtso-egoeran badago, printzipala itzultzea eta interesak ordaintzea lehenesten bada. % 5eko muga gainditzen duten obligazio-mota horietako inbertsioen guztizkoak ezingo du Funtsaren ondarearen % 80 gainditu.

- Deribatuetan inbertitzeko muga orokorra

Finantza-tresna deribatuei lotutako merkatu-arriskuarekiko guztizko esposizioak ezin izango du Funtsaren ondare garbia gainditu. Hauek hartuko dira arriskuarekiko guztizko esposiziotzat: finantza-tresna deribatuak erabiltzearen ondorio diren betebeharrak —egungoak edo potentzialak— eta horiekiko antzeko esposizioa sortzen duen inbertsio oro.

Aukerak erosteagatik ordaindutako primak —bai bakarka kontratatutakoak, bai egituratutako eragiketetan sartutakoak— ezingo dira Funtsaren ondarearen % 10 baino handiagoak izan, inola ere.

OTC deribatuei lotutako kontrako alderdi beraren arriskuarekiko esposizioa ondarearen % 5ekoa izango da gehienez, oro har, eta ondarearen % 10ekoa, kontrako alderdia muga jakin batzuk dituen kreditu-erakundea bada.

Jaulkitzaile bakarraren aurreko posizioek, produktu deribatuetan, aktiboetan eta finantza-tresnetan, kreditu-erakundeek jaulkitako obligazioetan —baldin eta jaulkipenaren konpromisoak behar bezala betetzen dituzten aktiboek bermatzen badute inbertsioaren zenbatekoa, eta printzipala itzultzea eta interesak ordaintzea lehenesten bada—, eta Funtsak erakunde horretan dituen interes eta gordailuetan egindakoek, ezingo dute Funtsaren ondarearen % 35 gainditu.

Jaulkitzaile bakarraren aurreko posizioek, produktu deribatuetan, aktiboetan eta finantza-tresnetan, eta Funtsak entitate horretan dituen gordailuek ezingo dute Funtsaren ondarearen % 20 gainditu.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Ondore horietarako, talde ekonomiko bereko erakundeak jaulkitzaile bakartzat hartzen dira.

- Kotizatu gabeko baloreetan inbertitzeko mugak

Eskura daitezkeen baloreek ezingo dute inolako mugarik izan transmisio libreari dagokionez. Debekatuta dago Funtsak bere taldeko edo Sozietate Gestorearen taldeko erakundeek jaulkitako balore kotizatu gabeetan inbertitzea. Halaber, ezingo du ondarearen % 2 baino gehiago inbertitu erakunde berak jaulkitako edo abalatutako baloreetan. Bestalde, ezingo du ondarearen % 4 baino gehiago inbertitu talde bereko erakundeek jaulkitako edo abalatutako baloreetan.

- % 10eko erabilera askeko koefizientea

Baimenduta dago honako hauetan inbertitzea, guztizko inbertsioa ondarearen % 10ekoa izanik gehienez:

- Edozein merkatu edo negozioazio-sistematzen negoziatzeko onartutako akzioetan eta errenta finkoko aktiboetan, baldin eta merkatu eta sistema horiek Espainiako merkatu ofizialen antzeko ezaugarriak ez badute, erregulaziopean ez badaude edo beste mekanismo batzuk badituzte, haien likidezia bermatzeko —IKE inbertitzaileak itzulketak egiten dituen maiztasun berarekin, gutxienez— .
- 1082/2012 Errege Dekretuaren 49. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kotizatu gabeko baloreetan.
- 2014ko azaroaren 12ko 22/2014 Legean araututako arrisku-kapitaleko erakundeak eta atzerriko antzeko erakundeak akzio eta partaidetzetan, eskualdagarriak direnean.

- Hirugarrenetikiko betebeharrak

Funtsa bere aktiboaren % 10eko mugaraino zorpetu ahal izango da, altxortegiko aldi baterako zailtasunak konpontzeko, betiere hilabete baino gehiagoz luzatzen ez badira, edo ordainketa geroratuko aktiboak eskuratuz, CNMVk ezartzen dituen baldintzekin. Ondore horietarako, ez dira kontuan hartuko finantza-aktiboak kontratatu diren merkatuak eragiketarako ezartzen duen likidazio-aldian aktibo horiek erostean egindako zorrak.

Aurreko legezkako koefizienteek Funtsari eragiten dioten hurrengo arriskuak arintzen dituzte; edonola ere, Sozietate Gestoreak beren-beregi egiten die jarraipena.

4.1. Arriskuen Politika eta Kudeaketa

Hona hemen Funtsari eragiten dioten arriskuak, Sozietate Gestoreak beren-beregi jarraipena egiten dienak:

4.1.1. Merkatu-arriskua

Arrisku horretan sartzen dira aktibo eta pasiboen interes-tasetan, ondare-masei dagozkien kanbio-tasetan eta finantza-tresnen merkatuko prezioetan izan daitezkeen aldaketa kaltegarrien ondoriozko arriskuak.

Sozietate Gestoreak arriskua kudeatzeko sistemak ditu, Funtsaren inbertsio-politikari lotutako arrisku guztiak zehaztu, neurtu, kudeatu eta kontrolatzeko, eta arrisku-profila inbertsio-politika eta -estrategiara egokitzeko.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

4.1.2. Interes-tasaren arriskua

Interes-tasen aldaketek kutxako fluxuetan edo finantza-tresnen arrazoizko balioan izan dezaketen eraginaren ondorio da interes-tasaren arriskua. Funtsaren kudeatzaileek mugak eta kontrolak dituzte ezarrita, arrisku hori kudeatzeko.

4.1.3. Kanbio-tasaren arriskua

Finantza-tresna baten balioa kanbio-tasen aldaketen ondorioz aldatzeko arriskua da. Ezarritako diru funtzionalean (eurotan) ez dauden finantza-aktiboetan eta beste produktu batzuetan inbertitzen du Funtsak. Hori dela eta, kanbio-tasen gorabeherak aldeko edo kontrako eragina izan dezakete Funtsaren aktiboen balioan.

4.1.4. Prezio-arriskua

Merkatuko prezioen aldaketen ondorioz sortzen den arriskua da. Finantza-tresnaren beraren faktore espezifikoek edo merkatuan negoziatutako tresna guztiei dagozkien faktoreek eragin ditzakete aldaketak.

Aldian behin, Funtsak finantza-inbertsioen zorroan dituen posizioen arriskua neurtzen du, VaR (Value at Risk) metodologiaren bidez. Metodologia horrek epealdi jakin baterako espero den gehieneko galera adierazten du, balio edo zorro baten portaera historikoan oinarrituta.

4.1.5. Likidezia-arriskua

Arrisku horrek adierazten du Funtsak zailtasunak izan ditzakeela, funts likidoak izateko edo funts horiek behar besteko zenbatekoan eta kostu egokian eskuratu ahal izateko, eta, beraz, uneoro ordainketa-betebeharrei aurre egin ahal izateko, batez ere eskatzen zaizkion itzulketak.

Funtsaren zorroaren likidezia orokorra kontrolatzeko berariazko politika du Sozietate Gestoreak, eta, ondorioz, merkatuen sakontasuna kontrolatzeko. Horri esker, aukera du posizioen salmenta modu mailakatu eta ordenatuan planifikatzeko, eta, horrela, partaideen eskakizunei azkar erantzuteko.

Horrenbestez, Sozietate Gestoreak likidezia kudeatzeko sistema bat du, bai eta Funtsaren likideziari datxezkion arriskuak kontrolatzeko prozedurak ere, arriskuak Funtsaren likidezia-profilean duen eragina adierazteko.

4.1.6. Kreditu-arriskua

Funtsaren kontrako alderdiek kontratu-betebeharrak ez betetzeagatik galerak sortzeko arriskua islatzen du kreditu-arriskuak. Funtsaren politikaren arabera, kontrako alderdiek kaudimen aitortuko erakundeak izan behar dute.

Funtsak ez du espero kontrako alderdiek beren betebeharrak ez betetzearen ondorioz galera nabarmenik izatea. Gainera, arrisku hori txikitu egiten da, aurrez azaldu ditugun inbertsio-mugak eta arriskuen kontzentrazioa direla eta.

Funtsaren zorroak zer baldintza bete behar dituen (kontzentrazioa) eta aktibo guztiekiko zer korrelazio izan behar duen ezartzen du indarreko legeriak.

4.1.7. Jasangarritasun-arriskua

Arrisku hori honela definitzen da: inbertsioaren balioan efektu material negatibo erreal edo posible bat izan dezakeen ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-gertaera edo -egoera oro.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Funtsaren Sozietate Gestoreak kontuan hartzen ditu jasangarritasun-arriskuak inbertsio-erabakiak hartzerakoan. Inbertsioen jasangarritasun-arriskua jaulkitzaile-motaren, jarduera-sektorearen edo kokapen geografikoaren mende dago, besteak beste. Hortaz, jasangarritasun-arriskurik handiena duten inbertsioek azpiko aktiboen prezioa jaitea eragin dezakete, eta, beraz, efektu negatiboa izan dezakete Funtsaren likidazio-balioan.

5. ZORDUNAK

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Funtsak ez du saldo zordunik.

6. FINANTZA-INBERTSIOEN ZORROA

Hona hemen finantza-inbertsioen zorroa, 2025eko eta 2024ko abenduaren 31koa:

	Eurotan	
	2025	2024
Barruko zorroa	10.027.376,69	25.499.803,46
Zorra adierazten duten baloreak	10.027.376,69	25.499.803,46
Inbertsio-zorroko interesak	(243.898,18)	(194.249,25)
Inbertsio berankor, zalantzazko edo auzipekoak	-	-
	<u>9.783.478,51</u>	<u>25.305.554,21</u>

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, zorroan ez dago zalantzazkotzat, berankortzat edo auzipekotzat jotako inbertsiorik.

Txosten honekin batera doazen I. eta II. eranskinetan, finantza-inbertsioen zorroak 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n zuen osaera zehaztu da, dagokionean «Deribatuak» eta «Inbertsio-zorroaren interesak» epigrafeetako saldoa kontuan hartu gabe.

Abenduaren 31n haxe da zorra adierazten duten baloreen muga-egunen banakapena:

	Eurotan	
	2025	2024
Urtebetetik beherakoa	10.027.376,69	20.351.777,47
1 eta 2 urte bitartekoa	-	5.148.025,99
	<u>10.027.376,69</u>	<u>25.499.803,46</u>

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (legezko entitate gordailuzainak) zaintzen ditu Funtsaren baloreak, eta ez daude pignoratuta edo lagata beste eragiketara batzuen berme gisa.

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n kontratu deribatuetan dauden posizioak 10. oharrean zehazten dira.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

7. ALTXORTEGIA

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, haxe da balantzeko aktiboko kapitulu horren xehetasuna:

	Eurotan	
	2025	2024
Gordailuzaineko kontua (eurotan)	1.801.436,88	156.615,70
	<u>1.801.436,88</u>	<u>156.615,70</u>

Kontu korronteen saldoak merkatuko interes-tasen arabera ordaintzen dira, eta Funtsak askatasunez erabiltzekoak dira.

8. PARTAIDEEI ESLEITUTAKO ONDAREA

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, Funtsaren ondarea formalizatzen duten partaidetza guztiek ezaugarri berak dituzte, eta balio nominalik gabeko izendun ziurtagiri bidez daude ordezkaturak — ziurtagiriok Funtsaren gaineko jabetza-eskubidea ematen diete titularrei—.

Partaidetza-kopurua ez da mugatua, eta horien harpidetza edo itzultzea eskariaren edo eskaintzaren arabera izango da. Harpidetzaren edo itzultzearen prezioa egunero finkatzen da, partaidetzaren likidazio-balioaren arabera. Balio hori Funtsaren ondare garbiaren bidez lortzen da, CNMVren 6/2008 Zirkularrean eta CNMVri buruzko 1082/2012 Errege Dekretuaren 78. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Partaidetza bakoitzaren 2025eko eta 2024ko abenduaren 31ko likidazio-balioa honela lortu da:

	Eurotan	
	2025	2024
Partaideei esleitutako ondarea	11.557.064,08	25.426.775,54
Jaulkitako partaidetza-kopurua	1.167.574,26	2.615.453,40
Likidazio-balioa	9,90	9,72
Partaide-kopurua	571	1.224

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, inbertsio-funtsetako partaideen gutxieneko kopurua ezin da 100etik beherakoa izan; kopurua txikiagoa izanez gero, urtebeteko epea egongo da gutxieneko partaide-kopurua iraunkorki lortzeko.

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, ez dago % 20tik gorako partaidetza indibidual nabarmena duen partaiderik, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen Erregelamenduaren 31. artikuluen arabera.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

9. HARTZEKODUNAK

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, hauxe da balantzeko pasiboko kapitulu horren xehetasuna:

	Eurotan	
	2025	2024
Administrazio publikoak hartzekodun (11. oharra)	2.196,49	3.377,97
Bestelakoak	25.654,82	32.016,40
	<u>27.851,31</u>	<u>35.394,37</u>

2025eko eta 2024ko abenduaren 31ko «Administrazio publikoak hartzekodun» atalak ekitaldian sortutako mozkinen gaineko zerga biltzen du.

«Hartzekodunak – Bestelakoak» atalean, kasuan kasuko ekitaldia ixtean ordaintzeko dauden gestio-eta zaintza-komisioen zenbatekoa jaso da, batez ere.

1. oharrean adierazten denez, Funtsaren kudeaketa eta administrazioa Caja Laboral Gestión SGIIC SArean ardura da. Zerbitzu horrengatik, Funtsak gestio-komisio bat ordaintzen du ondare-balioaren gainean: urteko % 0,25ekoa. Ehuneko horrek ez du gainditzen 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren 5. artikuluan adierazitako gehieneko tasa; izan ere, artikulua horretan % 2,25eko tasa ezartzen da, kalkulua ondarearen balioaren gainean egiten denerako.

Orobat, Funtsak urteko % 0,10eko zaintza-komisioa, Funtsaren ondarearen gainean kalkulatua, periodifikatzen du egunero. Errege Dekretuaren arabera, urteko % 0,20ko tasa aplikatu daiteke gehienez.

2018ko irailaren 1etik 2025eko urriaren 31ra arte (harpidetzen kasuan) eta 2025eko urriaren 30era arte (diru-itzultzeen kasuan), Sozietate Gestoreak % 3,00ko komisioa aplikatu die Funtseko partaideei, harpidetutako eta itzultutako zenbatekoen gainean.

Funtsak gastuak izan ditzake inbertsioen gaineko finantza-analisirako zerbitzuaren ondorioz — bitartekotza-zerbitzuaren barruan sartzen da—.

10. KONPROMISO-KONTUAK

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, Funtsak ez zuen eragiketarik irekita tresna deribatuetan.

11. EGOERA FISKALA

2025eko eta 2024ko ekitaldietan zehar, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, eta ondorengo aldakuntzek arautu dute Funtsaren erregimen fiskala. 2025eko eta 2024ko ekitaldietan zehar, Fondoak 100eko 1eko karga-tasa izan du sozietateen gaineko zergan, betiere 35/2003 Legearen bosgarren eta bederatzigarren artikuluetan eta ondorengo aldakuntzetan adierazten diren partaideak baditu gutxienez.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

Gainera, 2/2014 Foru Arauaren aldakuntza horiek direla eta, 2018ko ekitalditik aurrera aplikatzekoak diren eta aurreko ekitaldietatik datozen zerga-oinarri negatiboen, likidatu edo autolikidatu direnen, konpentsazioa, konpentsazio hori egin aurreko zerga-oinarri positiboaren % 50ekoa izango da, gehienez. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau horren 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat.

Indarreko legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat jo, harik eta aurkeztu diren aitorpenak agintari fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo 4 urteko preskripzio-epea iragan arte. Sozietate Gestoreko administratzaileen ustez, Funtsa ikuskatzen badute ez da sortuko zenbateko nabarmeneko pasibo gehigarriarik.

Ez dago alde nabarmenik ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaizaren eta, dagokionean, zerga-oinarri negatiboak konpentsatu aurreko zerga-oinarriaren artean.

Emaizta positiboak sortzen direnean, Funtsak gastu bat erregistratzen du galdu-irabazien kontuko «Mozkinen gaineko zerga» epigrafean, mozkinen gaineko zerga kontzeptupean, dagokionean galera fiskalen konpentsazioaren efektua kenduta. Funtsak emaitza negatiboak izaten baditu, ez da mozkinen gaineko zergaren bidezko sarrerarik sortuko.

Aurkeztutako sozietateen gaineko zergen aitorpenen arabera, eta 2025erako zenbatetsitakoa kontuan hartu gabe, Funtsak 1.898.799,24 euroko zerga-oinarri negatiboak ditu, etorkizuneko balizko zerga-onurekin konpentsatu gabe.

12. ERAGIKETAK ALDERDI LOTURADUNEKIN

Sozietate Gestoreak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 144. eta 145. artikuluetan aurreikusitako eragiketa lotuak egiten ditu Funttsaren kontura. Horretarako, Sozietate Gestoreak zenbait prozedura ezarri ditu, interes-gatazkak saihesteko eta lotutako eragiketak Funttsaren mesedetan eta merkatu-prezioetan egiten direla bermatzeko. Aldian behin egin beharreko txostenetan, egindako eragiketa lotuen informazioa txertatzen da, CNMVren 4/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan araututakoari men eginez. Gainera, Sozietate Gestorearekin egindako eragiketa lotuak ere jasotzen ditu, eta horien izaeraren, arriskuen eta zereginen berri ematen du.

Gordailuzainarekin egiten dituen eragiketei dagokienez, «Altxortegia» oharrean Funttsak Gordailuzainarekin dituen kontuen berri eman da, eta, I. eta II. eranskinetan, 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n Gordailuzainarekin egindako aktiboen aldi baterako eskurapenak jaso dira.

13. INGURUMENARI ETA BEROTEGI-EFEKTUKO GASAK ISURTZEKO ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Funttsaren Sozietate Gestorearen Administrazioaren iritziz, oso txikiak dira beren jarduerari lotutako ingurumen-arriskuak eta, nolanahi ere, behar bezala estalita daude, eta uste dute ez dela sortuko arrisku horiekin lotutako pasibo gehigarriarik. Funttsak ez du arrisku horiekin lotutako gasturik izan edo dirulaguntzarik jaso 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan.

Halaber, 2025eko eta 2024ko ekitaldietan, Funttsak ez du berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubiderik izan.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI INBERTSIO FUNTSA

Urteko kontuen txostena,
2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa

14. BESTELAKO INFORMAZIOA

- Auditoretzako zerbitzu-sariak

Ernst & Young SLk 3 mila euroko zerbitzu-sariak jaso ditu 2025eko eta 2024ko ekitaldietako urteko kontuen auditoretza egiteagatik, hurrenez hurren, noiz fakturatu diren kontuan hartu gabe. Bestalde, 2025eko eta 2024ko ekitaldietan, sozietate ikuskariak edo horri atxikitako enpresek ez dute kontu-ikuskaritzaz bestelako zerbitzurik eman.

- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen «Informatzeko eginbeharra»

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, Funtsak ez zuen hornitzaileei merkataritza-eragiketetan ordaindu gabeko zenbateko nabarmenik. 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, Funtsak ez die hornitzaileei zenbateko nabarmenik ordaindu merkataritza-eragiketetan. Sozietate Gestorearen Administrazioaren iritziz, 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n hornitzaileei merkataritza-eragiketetan ordaindu gabeko zenbatekoek eta 2025eko eta 2024ko ekitaldietan hornitzaile horiei egindako ordainketek gerorapenaren legezko mugak betetzen dituzte edo bete dituzte.

15. OSTEKO EGITATEAK

2025eko azaroaren 28an, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena eman zuen Laboral Kutxa Ahorro Corto Plazo IF funtsak (funts xurgatzaileak) Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado XI IF, Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado X IF eta Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado XVIII IF (funts xurgatuak) xurgatzearen bidezko bat-egitea gauzatzeko, Caja Laboral Gestion SGIIC S.A., erakunde gestorea den aldetik, eta Caja Laboral Popular Coop. de Creditos, entitate gordailuzaina den aldetik, eskatuta (1. oharra).

Xurgapen bidezko bat-egitea 2026ko otsailaren 6an gauzatu da. Xurgatutako Funtsak likidatu gabe desegin dira, eta haien aktibo eta pasibo guztiak multzoan eskualdatu dira Funts xurgatzaileari; beraz, orain horixe da xurgatutako Funtsen eskubide eta betebeharrak guztien ondorengo unibertsa.

Ekitaldia itxi zenetik Sozietate Gestorearen Administrazio Kontseiluak urteko kontu hauek formulatu arte ez da aurreko oharretan azaldu ez den egitate esanguratsurik gertatu.

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI
INBERTSIO FUNTSA

I. eranskina

Finantza-inbertsioen zorroaren xehetasunak, 2025eko abenduaren 31koak

Dibisa	ISINa	Azalpena	Eurotan
EUR	ES0000012G91	BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 2,25 2026-01-31	98.125,00
EUR	ES0000106551	BONUA, EAE % 1,75 2026-03-16	5.116.870,99
EUR	ES00000127Z9	BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,95 2026-04-30	112.380,70
EUR	ES0L02612049	REPOA, BBVA % 1,91 2026-01-02	4.700.000,00
Barruko zorroa guztira – Zorra adierazten duten baloreak			10.027.376,69

LABORAL KUTXA RENTA FIJA GARANTIZADO XI
INBERTSIO FUNTSA

II. eranskina

Finantza-inbertsioen zorroaren xehetasunak, 2024ko abenduaren 31koak

Dibisa	ISINa	Azalpena	Eurotan
EUR	ES0000106551	BONUA, EAE % 1,75 2026-03-16	5.037.850,84
EUR	ES00000127Y2	STRIPA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 0,85 2025-10-31	7.160.477,19
EUR	ES00000125J7	STRIPA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 0,91 2025-10-31	6.323.128,72
EUR	ES00000127Z9	BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,95 2026-04-30	110.175,15
EUR	ES00000127G9	BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 2,15 2025-10-31	4.249.681,05
EUR	ES00000122E5	BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 4,65 2025-07-30	147.855,23
EUR	ES0378641080	BONUA, FADE % 6,25 2025-03-17	2.400.635,28
EUR	ES00000126Z1	REPOA, LABORAL KUTXA % 2,95 2025-01-02	70.000,00
Barruko zorroa guztira – Zorra adierazten duten baloreak			25.499.803,46

KUDEAKETA TXOSTENA

Ingurune ekonomikoaren analisia, negozioaren bilakaera eta perspektibak

Urtea ixtarakoan, datu hauek genituen: 2 urteko Altxorren bonuak % 2,26koak ziren, 5 urteko bonuak % 2,64koak, 10 urteko bonuak % 3,28koak eta Alemaniarekiko 10 urteko diferentziala % 0,43koa. Burtsetan, irabaziak izan dira oro har. Iparramerikako burtsek gora egin dute: % 16,39 S&P 500 indizeak eta % 20,17 Nasdaq 100 indizeak. Eurostoxx 50a, berriz, % 18,29 hazi da.

2025aren amaieran bete egin dira munduko BPGd-aren hazkundeari buruz ekitaldi-hasieran zeuden aurreikuspenak. BPGd-a % 3,2tik gorakoa izan da, 2024ko datuekin bat etorriz. 2025. urtea positiboa izan da, batez ere bigarren seihilekoan ondo bideratu direlako lehen seihilekoan Trumpen Administrazioak muga-zergak iragarri ostean sortutako distortsioak. Izan ere, iragarpen horrek kolokan jarri zuen 2025erako hazkundera, bereziki AEBko ekonomiarena, murrizketa handiak ekarri baitzituen estimazioetan: % 2,3tik % 1,4ra igaro ziren. Eurogunean ere murrizketak egin ziren zenbatespenetan, baina ez hain handiak: % 1ekoak beharrean, % 0,8koak izan ziren. Hala ere, bigarren seihilekoa ona izan da. Aurreikusitako murrizketarik gehienak leheneratu egin dira: AEB % 2 inguru hazi da, eta eurogunea, % 1,4. Beraz, hasieran esan dugunez, badirudi bete egingo dela duela urtebete erabili genuen hazkunde-aurreikuspena.

Hazkunde globala sendoa bada ere, desberdintasun handiak daude blokeen artean. Indiak du ekonomiarik dinamikoena (% 6,5), eta, ondoren, Txinak, haren hazkundera % 5,0 baino zertxobait txikiagoa izan baita. Txinan, higiezinen burbuilak, AEBren muga-zergen inpaktuak eta beste arrisku batzuek ez dute motelaldia bizkortu. Hain zuzen ere, AEB da hirugarren eragilea, % 2,0ko hazkundera izatea lortu baitu. Datu horrekin, 2024arekin alderatuta gehien mantsotu den ekonomia da —2024an, % 2,8 hazi zen haren BPGd-a—. Azkenik, beste ekonomia handi batzuek oztopo izaten jarraitzen dute; adibidez, Erresuma Batuak (% 1,4), Japoniak (% 1,1, nahiz eta bizkortu egin den iazko % 0,1aren ostean) eta euroguneak (% 1,3). Eurogunean, zehazki, herrialdeen arteko desberdintasunak esanguratsuak dira: Espainiak % 2,9ko hazkundera lortu du; Alemaniak, Frantziak eta Italiak, ordea, oso hazkunde txikia izan dute (% 0,2koa, % 0,7koa eta % 0,4koa, hurrenez hurren).

Inflazioari dagokionez, espero zen moderazioa izan dugu: % 4,0tik % 3,0ra jaitsi da. Alabaina, aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da jaitsiera, muga-zergak indarrean jartzeak eta horrek bereziki ondasunetan eragindako gorakadak AEBn sortu duen erresistentzia dela eta. Eurogunean, espero zenaren ildotik joan da inflazioa (% 2,0koa izan da apiriletik); hots, aurreikuspenak oso egonkorak izan dira.

Muga-zergak eragozpen bat izan dira banku zentralen tasak jaisteko prozesuetarako, inflazioak izaten ari ziren bilakaera onari kalte egin baitzиеziaoketen. EBZk ez du fitxarik mugitu bigarren seihilekoan, aurreko seihilekoetan tasa-murrizketa handiak egin ondoren, eta % 2,15ean utzi ditu. Fedek oinarritzko 75 puntu jaitsi ditu, % 3,75eraino.

Tasak jaisteko prozesuan izandako etenaldiaren ondorioz, Europako zorra oso egonkorra da, eta, egia bada ere, tasak apur bat igo direla, errentagarritasunak positiboak izan dira. Italiak eta Espainiak 10 urterako jaulkitako bonuen BETek oinarritzko 10 puntu baino gutxiago egin dute gora, eta, hain zuzen, % 3,55 eta % 3,30 ingurukoak dira, hurrenez hurren; hori dela eta, errentagarritasun positiboa lortzen lagundu dute. Epe bereko Alemaniako zorraren BETak zertxobait gehiago egin du gora, oinarritzko 25 puntu, eta, beraz, errentagarritasun txikiagoak ekarri ditu. Kalitaterik handieneko eurotako errenta finko korporatiboak bilakaera ona izan du, % 1,21 egin baitu gora.

Funtsak ESG eragileak txertatzen ditu inbertsioen inguruan aztertzeko eta erabakiak hartzeko prozesuan, Caja Laboral Gestión SGIIC SAK onetsitako integrazio-politikan jasota dagoenez.

Politika horretan biltzen dira bai inbertsio-erabakietan ESG eragileak aktibo-motaren arabera —errenta aldakorreko akzioak eta errenta finkoko bonu korporatiboak, zor publikoa, eta inbertsio kolektiboko tresnak— integratzeko irizpidea eta baimendutako diskrezionalitate-mailak eta bai inbertsioetarako finantzez gaindikoa beste muga batzuk.

Ikerketa, garapena eta ingurumena

2025eko ekitaldian zehar, Funtsak ez du esku-hartzerik egin ikerketaren eta garapenaren alorretan.

Horrez gain, Funtsaren jardura dela eta, ez du ingurumen-arloko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik edo kontingentziarik, Funtsaren ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez nabarmenak izan daitekeenik. Hori dela eta, urteko kontuen txostenean ez da ingurumen-gaiei buruzko informazio espezifikorik sartu.

IKEak finantza-tresnak erabiltzea

Duen jardura dela eta, Funtsak bere helburu sozialerako erabiltzen ditu finantza-tresnak, eta merkatu-, kreditu- eta likidezia-arriskuen helburuak eta gestio-politikak doitu egiten ditu, indarrean den legeriak (35/2003 Legeak, 1082/2012 Errege Dekretuak eta dagozkien Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak jaulkitako Zirkularrek) garatutako muga eta koefizienteen arabera, eta Funtsaren liburuxkan ezarritako inbertsio-politikari jarraituz.

2025eko ekitaldia itxi osteko gertakari garrantzitsuak

Ez dago txostenean aipatutakoaz bestelako ezer aipatzeko.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdia

Ez dago txostenean aipatutakoaz bestelako ezer aipatzeko.

URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA TXOSTENA

Caja Laboral Gestion Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva SA pertsona bakarreko sozietatearen administratzaileak 2026ko martxoaren 25ean bildu dira, eta, indarrean dagoen legeria betez, Laboral Kutxa Renta Fija Garantizado XI Inbertsio Funttsaren Urteko kontuak eta Kudeaketa Txostena (2025eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak) egin dituzte. Kontu eta txosten horietan, idazki honen aurreko dokumentuak sartzen dira, alegia, honako hauek:

- a) 2025eko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, 2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoak
- b) Urteko kontuen txostena, 2025eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoak
- c) Kudeaketa Txostena, 2025eko ekitaldikoak

SINATZAILEAK:

SINADURA

Beñat Herce Leceta
(Lehendakaria)



Aitor García Santamaría
(Idazkaria)



Eli Fernández Caballero
(Kidea)



Gorka Azurmendi San Sebastián
(Kidea)

